

2023ko martxoaren 15a, asteazkena

51

Miércoles, a 15 de marzo de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZPEITIKO UDALA

Azpeitiko HAPOko «Amue» 11. HE-ko Plan Bereziaren hasierako onarpena.

Alkatetzaren 2023ko otsailaren 28ko Ebazpenaren bidez, hasiera batean onartu da Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren AU 11 «Amue» Hirigintza-eremurako Hiri Antolamenduko Plan Berezia. Plan horrek, halaber, Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoak emandako irismen-dokumentutik abiatuta egindako ingurumen-azterlan estrategikoa eta Udaleko Hizkuntza Ebaluaziorako Batzordearen txostenetik abiatuta egindako hizkuntza-inpaktuaren azterlana biltzen ditu.

Azpeitiko Udalak sustatu du Plan Berezia, eta Kream S. Coop-ek idatzi du, Larraitz Sasiain arkitektoaren zuzendaritzapean.

Plan Bereziaren mugaketan mota guztietako onarpenak, baimenak eta lizentziak ematea etenda geratzen da, baldin eta aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen Hirigintzaaraubidea aldatzea badakarte. Etenaldi hori urtebeteko epean mantenduko da, edota, hala badagokio, Plana behin betiko onartu arte, adierazitako epea baino lehenagokoa bada.

Horrenbestez, lurralde-antolamenduko planak eta lurralde-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 31. artikuluak dioena jarraituz, jendaurreko erakustaldian jarriko dira Azpeitiko Udaleko Idazkaritzan planaren dokumentua, Ingurumen Azterketa Estrategikoa eta hizkuntza-inpaktuaren azterlana, berrogeita bost laneguneko epean (45), iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitzen den hurrengo egunetik hasita. Aipatutako epean aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dira Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan (Plaza Nagusia, 5 1. solairua) eta Azpeitiko Alkate-Lehendakariari zuzenduta. Era berean, elektronikoki aurkeztu ahal izango dira udalaren egoitza elektronikoaren bidez eta baita Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako beste modu batean ere.

Aldi berean, eragindako administrazio sektorialei eta aldez aurretik kontsultatutako pertsona interesdunei kontsultak egingo zaizkie.

Dokumentuak hasierako onespenaren ebazpenarekin batera Azpeitiko Udalaren web orriko iragarki-taulan www.azpeitia.eus egongo dira ikusgai. Bere aldetik, Irismen-dokumentua eta espedientearen tramitazioa osatzen duten gainerako ebazpenak webgunean daude argitaratuta Hirigintza eta Ingurumen Saileko garapen-plangintzaren atalaren barruan, «Amue 11 Hirigintza eremurako Hiri Antolamenduaren Plan Bereziaren onarpena» izenarekin.

Ebazpen honen aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu, izapide-egintza bat delako.

Azpeitia, 2023ko martxoaren 1a.—Nagore Alkorta Elorza, alkatea. (1566)

AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

Aprobación inicial del Plan Especial AU 11 «Amue» del PGOU de Azpeitia.

Por Resolución de Alcaldía de fecha 28 de febrero de 2023 se ha aprobado con carácter inicial el Plan Especial de Ordenación Urbana para el ámbito urbanístico AU 11 «Amue» del Plan General de Ordenación Urbana de Azpeitia, que integra a su vez el Estudio Ambiental Estratégico elaborado a partir del documento de alcance emitido por el órgano ambiental del Gobierno Vasco, así como el estudio de impacto lingüístico elaborado a partir del informe elaborado por la Comisión de Evaluación lingüística del Ayuntamiento.

El Plan Especial ha sido promovido por el Ayuntamiento de Azpeitia y redactado por Kream S. Coop. bajo la dirección de la arquitecta Larraitz Sasiain.

Queda suspendido el otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias en la delimitación del Plan Especial en las que las nuevas determinaciones previstas supongan modificación del régimen urbanístico vigente. Esta suspensión se mantendrá en el plazo de un año y en su caso hasta la aprobación definitiva del Plan si precede al plazo señalado.

En consecuencia, y de conformidad con el artículo 31 del Decreto 46/2020 de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación territorial, el correspondiente documento del Plan acompañado del estudio ambiental estratégico y del estudio de impacto lingüístico se exponen al público en la Secretaría de este Ayuntamiento durante el plazo de cuarenta y cinco días hábiles (45), a partir del día siguiente hábil al de la publicación del presente anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a fin de que puedan ser examinados y presentarse durante este periodo de información pública, las alegaciones que se estimen procedentes, que deberán ser presentados en Servicio de Atención Ciudadana de este Ayuntamiento (Plaza Nagusia, 5 1.º piso), dirigidas a la Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento. De igual forma, podrán presentarse electrónicamente a través de la sede electrónica del Ayuntamiento o en otra forma establecida la Ley de Procedimiento Administrativo Común.

Paralelamente procederá el trámite de consultas a las administraciones sectoriales afectadas y a las personas interesadas previamente consultadas.

Los documentos junto con la Resolución de aprobación inicial estará expuesto en el Tablón de Anuncios de la página Web del Ayuntamiento de Azpeitia www.azpeitia.eus, y el documento de alcance junto con las demás resoluciones que integran la tramitación del expediente están publicados en el apartado del departamento de Urbanismo y Medioambiente de la página web, dentro de la sección del planeamiento de desarrollo con el nombre de «Aprobación del Plan Especial de Ordenación Urbana para el ámbito urbanístico 11 Amue».

Contra la presente Resolución no cabe interponer recurso alguno por tratarse de un acto de trámite.

Azpeitia, a 1 de marzo de 2023.—La alcaldesa, Nagore Alkorta Elorza. (1566)

www.gipuzkoa.eus 1 LG.:S.S.1-1958